ZABALGANA ZIENTZIA AZOKA 2024

Zer da?	**Oinarri zientifikoa duten erakusketa edo txokoen lehiaketa:** Egindako lan baten aurkezpena, esperimentu bat garatzea, maketa bat erakustea, joko matematiko bat garatzea, zientziaren historiari buruzko pasarte bat aurkeztea, egindako ikerketa baten emaitzak azaltzea...
Non?	**Zabalgana institutuko hall-ean**
Noiz?	**Martxoaren 18ko astean**

Partehartzaileak

- 2-5 pertsonako taldeak
- 2 kategoria:
  - A KATEGORIA: DBH 1, 2 eta ZIG gela
  - B KATEGORIA: DBH 3, 4 eta Batxilergoa

Sariak (kategoria bakoitzeko)

- **1.saria:** Irteera Hontzaextremera, diploma eta Elhuyar Zientzia Azokan izena ematea.
- **2.saria:** Novajump-erako sarrerak eta diploma.

Hontzaextreme eta Elhuyar Zientzia Azoka

Zer egin behar da izena emateko?

- Email bat bidali azoka_zientzia@zabalganabhi.net korreora. Agertu beharreko datuak:
  - Parte-hartzaileen izenak, abizenak eta taldea
  - Txokoaren izenburua
  - Txokoan ikusiko denaren deskribapen laburra (4-5 lerro)
- Txokoak prestatzeko gela bat zabalduko da astelehenetan 15:30-17:30 bitartean (ez da derrigorrezkoa, baina aukera hori izango duzue)
- Izena emateko epe-muga: **martxoak 1, gaueko 23:00etan.**

Onarpen baldintzak

- Euskaraz aurkeztutako lanak izango dira.
- Esperimentu eta lan guztiek segurtasun neurriak bete behar dituzte.
- Alderdi etikoa: ez dira onartuko pertsonentzako edo beste bizidunentzako mehatxua izan daitezkeen proiektuak. Horrez gain, datu pertsonalak erabiltzen badira, dauten babeserako neurriak hartu direla bermatuko da.
- Portaera egokia eta adeitsua izatea txokoak prestatzerakoan eta baita aurkezpenean ere.
- Azoka amaitu eta gero txokoak jaso eta espazioa garbi utzi beharko da.

Epaimahaia eta lanen balorazioa

- Epaimahaiko partaideak Biologia-Geologia eta Fisika-Kimika mintegiko irakasleak izango dira.
- Lanen balorazioa errubrika bidez egingo da:

	MAILA APALA	OINARRIZKO MAILA	MAILA EGOKIA	MAILA BIKAINA
Txokoaren helburua edo hipotesiak	Helburu/hipotesirik ez	Helburu/hipotesi ez oso zehatza, fantasiatsua, ez errealista	Helburu/hipotesi egokia eta ondo formulatuta	Helburu/hipotesi zehatza, ondo mugatua, interes zientifiko handikoa
Teoria zientifikoekin lotura	Teoria zientifikoekin loturarik ez	Proiektuak loturak ditu teoria zientifikoekin	Proiektuak loturak ditu teoria zientifikoekin, eta haiekin koherentea da	Proiektuak lotura esplizituak egiten ditu teoria zientifikoekin, eta haiekin koherentea da
Emaitzak/ ondorioak	Emaitzek akatsak dituzte edo emaitzarik ez dago. Ondoriorik ez edo oso eskasak.	Emaitzak daude, kalitate ertaina. Ondorioak oinarrizkoak dira (orokorregiak, eskasak).	Emaitza onak. Ondorioek hasierako helburu/hipotesiei erantzuten diete.	Emaitzak kalitatezkoak. Ondorioek hasierako helburu/hipotesiei erantzuten diete.
Ahozko aurkezpena eta galderen erantzunak	Azalpen laburrak edo azalpenik ez. Interes gutxi.	Ideia nagusiak komunikatzeko zailtasunak.	Ondo komunikatuta. Denboraren kudeaketa ona.	Hizkuntza zientifiko egokia, azalpenak argiak eta ulergarriak dira. Denboraren kudeaketa ona.
Aurkezpena egiteko euskarri lagungarriak (posterra etab.)	Behar baino euskarri gutxiago, edo akasdunak	Euskarri nahikoak, kalitate ertaina.	Euskarri nahikoak, kalitate ona.	Kalitate aparteko euskarriak (posterrak, gidoiak, maketak, irudiak...), aberatsak.
Garrantzia eta originaltasuna	Garrantzi txikia du edo/eta originaltasun gutxi	Oinarrizkoa	Aukeratutako gaiaren garrantzia edo originaltasuna hobetu zitekeen	Aukeratutako gaia garrantzitsua da gizartean edo hezkuntzan, eta egindako lana originala da.